

## Legarraren memoriaz



### Narrazioa eta poesia uztartu ditu **Aurelia Arkotxak zortzi urteko 'isilaldia' eten duen liburuan**

Amagoia Iban

Atari ahantziak poema liburua plazaratu eta gero, Aurelia Arkotxak zortzi urte behar izan ditu hurrengo liburua osatzeko. *Septentrio* hau dugu *isilaldi* luze horren emaitza, eta nabari zaio hartutako lana. Lan handia, gainera, liburuan ageri diren testu, izen eta mapa zaharren agertzeak berak nabarmen-tzen duenez. Baina zer da *Septentrio*? Geopoetika institutuaren sortzaile Kenneth White-k arrasto batzuk ematen dizkigu liburuko hitzaur-reen: «Aurelia Arkotxaren erudizioaz frogatzen franko bantuen. Urte andana batez, hainbat eta hainbat artxibotegi miatu zituen. Ondotik, itsasoz haraindian ere ikerka ari izana zen. Bizkaiko baia-

### Bidaia honen kontaketa testu zaharren kutsua ematen asmatu du Arkotxak

ko airean barreaturik gelditzen ziren elementu guztiak bildu beharrez ibili zen».

Arkotxak berak laguntzen digu jarraian Septentrion Iparraldearekin, hango haizearekin lotzen. Eta komeni da agian Iñigo Aranbarriri *Hitzak eta giltzak* (Alberdania, 2001) liburuan irakurritakoa gogora ekartzea: «Gaur egunean, berriz, kultura bisualaren oinordeko, globalizazioaren mirabe, goian ezarri dugu iparra eta behean hegoa. Hala, 'Madrilera bajatzen da' halako astero, eta beste hura, berriz, beti dago prest galdetzeko zergatik

**Narrazioa: Septentrio.**  
**Aurelia Arkotxa.**  
Alberdania, 2001  
185 orrialde  
2.600 pezeta (104 libera)

deitzen den *Behenafarroa* mapan Nafarroa-Nafarroa baino gorago dagoen eskualdeari». Esan gabe doa Aurelia Arkotxa *Behenafarroa* horretakoa dela, Baigorrikoa, eta bere liburu berrian ikusten diren mapetan Septentrion ez dela goian ageri. Gaur egungo mundu ikuspegiak ez dituelako jaso nahi izan, ziurrenik. Horrela, *Septentrio* honen azaleko mapan Oriens-Ekialdea goian ageri da, eta Septentrio-Iparra ez-kerraldean.

### Ekialdean barna

*Oriens* atalarekin hasten da Arkotxa itsasoetako eta itsasora doazen ibaietako urak jarraitzen. *Marko Poloren ametsa* narrazioa paratu du lehenik horretarako, veneziarrak Ekialdean ezagututako mundu miresgarriak hizkuntza onirikoan irudikatuz. Bidaiari handiaren lur ezezagunetik eta emakume jakin batekiko maitasun istorioaren kontaketa egiten du bertan idazleak. Jarraian dator *Sine nomine*, Iohan Mandabillakoaren alegiazko eskuizkribuaren transkribapena. Marko Polok bere ametsean aipaturiko zenbait lur eta herriren oihartzunak topatuko ditu bertan irakurleak, baina baita beste kontu eta toki harriarrik ere. Eta bidaia honen kontaketa hainbat testu zaharren kutsua ematen asmatu du Arkotxak. «Ene pausan iragan denboraz naiz

oroitu, eta herritik ilki eta hogeita hamalau urte geroago lehen ene bidaietan ikusiak ditut hemen izkiriatu, mila hiru-hun berrogeita hamaseiko urte benedikatu honetan», dio Mandabillakoak kontakizunaren amaieran.

Ezin uka liburuaren bigarren atalak, *Peregrinatio* izenekoak, izenburu argigarria duela. Labradorko eta Ternuako lurretan zehar eginiko bidaia bat proposatzen digu idaz-

leak atal horretan. Narratzaile euskaldun itsasturiek han utzitako arrastoen bila erro-mesaldian joana dela dirudi, eta ibilbide horretan haien memoria gordetzen duen Émile aurkezten digu. Quebectarra da Émile, *amerindiarra, indianoa edo autoktonoa* «zurien hizkuntzan», berak dioen bezala. Erromesaldia, ondoren, antzinakoek ezagututako eta izendatutako lekuen bilaketa bilakatzen da.

### Labradorko eta Ternuako lurretan zehar eginiko bidaia ere proposatzen digu

Eta halako tristura kutsu bat hartzen du narrazioak. Horren adierazle dira atal honen amaiera esaldiak: «Iduri luke oroitzak euskal marinelen egotearen arrastoa atxiki duela toponimian. Ordea, nor da ohartzen marinela zahar euskaldunek ez zutela leku hau nehoiz Port au Basques deitu? Nor da oroitzen euskaraz hau izan zela Sascot Portu?».

Eta, azkenik, *Mare magnum fine* atala dator, antzinako itsasturi eta bidaiari haiei eskainitako poesiaren betea. Bidaia bitxia bezain ederra eskaini digu Arkotxak.

## Joxe Mari Iriondok Joxe Lizasoren ibilbidea azaldu du liburu honetan, Lizasoren beraren testuen laguntzaz



Bertsolaritza: **Joxe Lizaso.**  
**Nere aldiko kronika.**  
**Joxe Mari iriondo.**  
Auspoa, 2001.  
419 orrialde.  
3.000 pezeta (120 libera).

Joxe Lizaso gaur egun gure plazetan kantari dabilen bertsolari zaharrena

da. Badu haren bizitzak bertsolaritza munduaren aldaketan berri. Liburu honetan, Joxe Mari Iriondok haren ehunka bertso aukeratu, sailkatu eta eman ditu. Joxe Lizasok, berriz, bere bizitzako une gogoangarri zenbait hartu ditu hizpide, eta baita gure herriaren historiako gertakari batzuk ere. Bertsolaria gizartearen lekuko ere badela erakusten du lan honek.

## Sadeko Markesaren sexu-fantasia agerian, neska birjina baten sexu heziketaren kontakizunaren bitartez



Antzerkia: **Filosofia apaingelan.**  
**Donatien Sade.**  
Itzulpena: **Bego Montorio,**  
**Juan Martin Elexpuru.**  
Txalaparta, 2001.  
305 orrialde  
2.200 pezeta (88 libera)

Adituen ustez, hau da Sadeko Markesaren lanik distiratsuen. Antzezlan moduan dago egituratua, eta neska gazte birjina baten heziketa sexuala du gaia. Eugeni izena du neska horrek, eta Dolmancé eta Saint-Ange jaun-andereen eskutik ezagutuko ditu plazeraren eta bizitzaren sekretu guztiak. Luis Elberdin sexologoaren hitzurre mardul batek ematen dio sarrera obrari liburuan, Saderen ekarpena eta barne mundua ulertzeko lagungarri gertatzen dena.

## Hainbat pertsonaiaren bizitzak gurutzatuz osatu du bere azken eleberria Ixiar Rozasek



Eleberria: **Sartu, korrontea dabil.**  
**Ixiar Rozas.**  
Erein, 2001.  
136 orrialde.  
1.700 pezeta (68 libera)

Jatorri, giro eta bizimodu diferenteetako pertsonaiak ageri ditu Ixiar Rozasek liburu honetan, bakoitza

bere bidean, besteekin gurutzatuz tartean. Austerlich-eko estaziora trenean eta inongo agiririk gabe heldu da emigrante bat. Egunkari ospetsu bateko zuzendariak lagunduko dio poliziaaren kontrolak gainditzen. Hortik aurrera, kokainomanoak, kalean bizi den jendea, beren bizitzetan sexua baino ez dutenak eta beste hainbat pertsonaia aurkeztuko dizkigu jarraian idazleak, istorio gurutzaketak erabiliz.